

Gaurkotasuna

E

zagutzen ez duzun gizaki bat itxuraz nolakoa den aztertzeko, oso beharrezkoa izan ohi da argazkiren

batean ikustea. Baina oraingo honetan, Uxueren bertakotzearekin alegia, horrelakorik jakiterik ez dut. Bere argazkian Uxue nolakoa den nire artikulu hau idatzi eta egun batzuetara jakingo baitut, gutxi gora-behera. Baina hori da gutxiena. Berak aurrenekoz gure artera idatzitakotik sumatu dezakedalako zerbait: bere akats eta bere balio guztietan ederra dela. Eta ez dut gizon bezala esaten, sail honetan ni neu gaur zaharrena izatera pasatzearen harrokkokeriaren izenean baizik. Uxue, Beñat, ikusten duzueenez, langintza horretan ere hasi behar nuen noizbait, eta urtetako ahaleginaren ondorioz, unea iritsi zait, hala ematen du behintzat. Eta altxor hori oraindik ere aberasteko asmotan nagoela esan beharrik ez da. Esan bezala, nik ez dut goran, gure aldamenean jarriko diguten Uxueren argazki hori ikusi, baina irakurleen begiek ondo hartu eta ondo gordeko dutelakoan nago. Baina ez dut nik nire irudimenaz aterako haren fotografiaren gaia gaur agortu nahi. Beste zerbait esan beharra dut. Bere ttakuna idazteko, Uxuek, besteak beste, gaurkotasuna hartu zuen gai. Eta bere iritziaren berri azaltzeaz gainera, nire iritzia ere piztu zuela dudarik ez egin. Gaurkotasuna zer den edo zer izan daitekeen erantzuten zaila dela iruditzen zaio Uxueri, zentzu osoz. Ez zaio, ordea, berari bakarrik gertatzen. Gaurkotasunak bizi gaituen gizaldi guztien arazoa da hori. Eten egiten al du gaurkotasunak kate zaharra? Segidari utzi gabe? Gaurkotasuna ez da amaitzen, amaitzen denean, gaurkotasun berria azalduko zaigulako, edo azaltzen ari zaigulako. Horrela,

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

gaurkotasun zaharraren ilunabarra eta berriaren eguntasia batera ditugu. Gaurkotasun berria jaioko zaigu. Nolakoa izango den ez nuke esango, ordea. Gaur egun etorkizun handiena duten lanbideen artean egon arren, igarle izatea oso zaila baita. Eta horixe izango da gaurkotasunaren kezka larrienetako

bat: nondik datorren badakiela, baina ez nora doan. Horrexegatik, hain zuzen, gaurkotasun zaharra badihoakigula jakinaren gainean gare-lako hasten gara, dudarik gabe, gaurkotasun berri hau lantzen. Baina nire beldur bakarra hau da: joan aurretik, gaurkotasun horrek halako testigantza baliotsu eta oparoak utziko ote dizkigun. Aitona-amonak joan zorian daudenean ilobek haien oroipenak biltzen hasten garenean bezala, guk gure zaharren gaurkotasunarenak jaso eta gorde nahi ditugu, gu ez ezik, datorren gaurkotasun berria ere horrela aberastu egingo den uste osoan. Xabier Lete eta Gabriel Celaya poeten omenezko nazioarteko poesia sariketarako sortu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horretaz gain, Celaya jaio zeneko mendeurrena gogorarazteko, hari buruzko jardunaldiak egin dira martxoaren 14tik 21era bitarte, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. Bien izen

horiek elkartzearekin, bi poeta horien gaurkotasuna jasotzearekin, Euskal Herriaren gaurkotasunari beste gaurkotasun bat eman zaio: ahaztu beharrean, oroitu, eta gaurkotasunaren kate luzeari bukaera eman beharrean, kate luze horren mutur berri bat jarri gure eskuetan. Horacio zaharrak esaten zuen zorionekoak direla haien izenak poetenekin nahasten diren herriak. Zaharrak berri-tuz, testigantza hori hitzen paperezko argazki iraunkorra da. Uxue eder bat, atzo eta gaur. ■



Nire beldur bakarra hau da: joan aurretik, gaurkotasun horrek halako testigantza baliotsu eta oparoak utziko ote dizkigun. Aitona-amonak joan zorian daudenean ilobek haien oroipenak biltzen hasten garenean bezala, guk gure zaharren gaurkotasunarenak jaso eta gorde nahi ditugu, gu ez ezik, datorren gaurkotasun berria ere horrela aberastu egingo den uste osoan

